




**II. EDIZIOA
2025**

PRENTSA OHARRA AMUA BIDEOKLIP LEHIAKETA ABIAN DA IZEN EMATEKO EPEA

2025eko azaroaren 13, 14 eta 15ean Hondarribian ospatuko den Amua Film Labur Musikalen Jaialdiaren bosgarren edizioa dela eta, abian da II. AMUA BIDEOKLIP LEHIAKETAREN deialdia.

Amua Kultura Elkartek antolatutako eta Hondarribiko Udalaren babespean egingo den lehiaketak, aurtun, Euskal Herri osoko taldeei zabalduko die parte hartzeko aukera. Horrela, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Nafarroa, Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako taldeek parte har dezakete, betiere euren bideoklipak osorik euskaraz badira.

Edizio honen helburua da euskaraz jarduten duten musika taldeen lana balioan jartzea. Haiek baitira gure hizkuntza erabiltzearen, sustatzearen eta gozatzearen oinarri sendoenetakoak, bai eszena lokalean eta baita nazioartekoan ere.

Bideoklipak musika eta zinemaren fusio indartsuaren bidez osatutako narrazioak dira. Sorrera une beretik, gure komunitate artistikoaren aniztasuna, sormena eta berrikuntza-espirtua islatu dute.

Lehiaketa honen bidez, talde horien talentua, lana eta konpromisoa omentzea bilatzen da, eta horretarako ikusgarritasuna eta aitortza eskaintzen zaie, askotan produkzio masiboek itzalean uzten duten kultura-ingurune batean. Euskarazko musika eta gure komunitatean sortutako kultura defendatzea eta sustatzea, inoiz baino beharrezkoagoa da.

Deialdia 2025eko ekainaren 25etik urriaren 8ra bitartean egongo da zabalik. Jasotako lanak Jaialdiko hautaketa-batzorde batek baloratuko ditu. Epaimahaia musika, zinema eta publizitatearen alorretako profesionalek osatuko dute.

Gehienez 10 bideoklip finalista aukeratuko dira, AMUA Jaialdiaren programazioaren baitan proiektatzeko.

Sari bakarra emango da: LEHENENGO SARIA: 1.000 € (Sari honeri P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaio), eta azaroaren 15eko itxiera-ekitaldian abesti irabazlea zuzenean aurkezteko aukera eskainiko da.